


Pedro Larrea

EHUko Gizarte Kontseiluko lehendakaria



XOUSA SIMAL

«EHUk ez gaitu ikusi behar oztopoak jartzera goazen kanpotar gisa»

Unibertsitatearen planifikazio orokorrari dagozkion gaietan esku-hartze gehiago behar luke Gizarte Kontseiluak, Pedro Larrearen irudiko

Iñigo Olabarri • Bilbo

■ **Gizarte eta unibertsitatearen arteko zubi lana egitea da Gizarte Kontseiluaren lana. Nola gauzatu da lan hori?**

Izatez erakunde berria da Gizarte Kontseilua, eta, ziurrenik, ez da sortu zen sasoian egin ziren aurreikuspenak betetzen ari. Gobernu organo bezala jaio zen; Euskal Herriko Unibertsitatearen atal bat da, eta eskuduntzak ditu, batez ere, arlo ekonomikoari dagokionean.

Baina, funtsean, unibertsitatearen antolaketan gizartearen ordezkari bat ere egon dadin sortu zen. Ildo horretan, gizarte eta unibertsitatearen arteko zubi lana egitea du helburu.

■ **Gizarte Kontseilua sortu zenean egin ziren aurreikuspenak ez direla bete adierazi duzu. Zertan ez dira bete?**

Unibertsitate sistemaren barruan oso erakunde berri-tailea izan da. Hasiera batean estamentu akademikoek

ez zuten batere ondo hartu, kanpoko esku-hartze bat dela uste baitute, unibertsitatearen garapenerako ezerosa den esku-hartzea. Hori guztia dela medio, hasiera batean gizarte kontseiluak arazo asko izan zituzten unibertsitateko beste organoekin; bereziki errektoreekin eta haien taldeekin, eta Gobernu Batzarrarekin.

Esan behar da, era berean,

Unibertsitatearen Erreformatarako Legeak oso diseinu mugatua egin zuela gizarte kontseiluak diseinatzeko orduan. Mugatua diodanean arlo ekonomikora gehiegi mugatu zutela esan nahi dut. Unibertsitatearen aurrekontua onartzen du Gizarte Kontseiluak, inbertsio planak onartzen ditu, titulu propioen tasak onartzen ditu... oso diseinu mugatua da.

Beste arazo bat ere bada-go. Gizarte Kontseiluaren eskuduntzak zehazteko orduan errealismo gutxiarekin jokatu zuten. Kontseiluak aurrekontuak onartu behar baditu eta inbertsio planak

onartu behar baditu, horretarako baliabide teknikoak eduki behar ditu: ekonomia-lari zerbitzuak eta abar. Eta ez dauka horrelakorik. Hori dela eta, Gizarte Kontseiluak askotan unibertsitateetik iristen zaizkion proposamenei oniritzia eman baino ez du egiten.

Diseinu kaskar horren ondorioz, zenbait unetan harremanak ez dira nahi genuen bezain onak izan, nahiz eta gaur egun hori ere gainditzen ari garen.

■ **Zeintzuk dira, arlo ekonomikoaz gain, nahi zenituzketen eskuduntzak?**

Neurri handi batean unibertsitatearen planifikazio orokorrari dagozkionak. Enpresa baten administrazio kontseiluaren antza izatea nahiko genuke, kudeaketaren kontrolaz arduratzen den organoa izan beharrean. Partida batetik bestera milioi bi eraman ahal ditugun ala ez eztabaidatu beharrean, nahiago genuke arlo estrategikoko diseinuetan parte hartzea.

■ **Gizarte Kontseilua eta Errektoretzaren arteko harremanek eskasak izaten jarraitzen dute edo denbora-ekin hobera egin dute?**

Izugarri hobetu direla esango nuke. Hori baino urrats garrantzitsuago bat egin dugu, gainera: guztiok onartu dugu gure harremana hobetu behar dugula. Unibertsitateak ez gaitu ikusi behar oztopoak jartzera doan kanpotar bezala, eta guk ez dugu unibertsitateara joan behar haren funtzionamenduaren gaineko aurreiritziekin.

■ **Gizartearen azken urteetan aurrerapen ikaragarriak izan dira, eta aurrerapen horiek unibertsitatean ere eragin dute. Horiei nola erantzun behar die unibertsitateak etorkizunean?**

Jakintzaren gizarte da aurrean daukaguna. Hori da


Enpresari musikazale eta NBAzalea

Gizarte Kontseiluaz mintzo denean, elkarriketan zehar pare bat aldiz jarri ditu eredu bezala enpresen administrazio kontseiluak. Pedro Larrea Sidenorreko lehendakariordea da, nazioartera zabaltzeko prozesuan sartuta dagoen enpresako lehendakariordea. Unibertsitatea ere enpresaren ikuspegitik aztertzen du neurri batean.

1940. urtean jaio zen Pedro Larrea, Urduñan. Deustun egin zuen Enpresa Zientzietako lizentziatura, eta Madrilgo Complutensean zuzenbide ikasketak.

Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurritzakako Ogasun sailetan lan egin du, besteak beste, Sidenorrera joan baino lehenago.

Musika gogoko du oso. «Gaztetan pianoa astindu ohi nuen, txistulari talde batean ere aritu nintzen; 70. hamarkadan Xoxoa disketxea abian jarri genuen, eta arrakasta txikiren baten ostean, itxi egin behar izan genuen, arazo ekonomikoak zirela eta». OLBEk Bilbon ematen dituen opera ekitaldietan ohikoa da bera ikustea. NBA du beste zaletasun nagusi bat.



XOUSA SIMAL

Gehiegizko ordezkari-tza

Guztira 30 pertsona dira gizartearen ordezkari Euskal Herriko Unibertsitatean. «Horietatik 18 ez gara akademikoak, eta 12 dira EHUko ordezkari. Ez-akademikoen artean 9 legebiltzarrak aukeratzen ditu, 3 Batzar Orokorrak, 3 Confebaskek eta beste 3 sindikatu garrantzitsuenek». Kopuru horri gehiegizkoa deritzo Pedro Larreak. «Ordezkari gutxiago izatea komeniko litzateke, eta horiek unibertsitateari dedikazio handiagoa eskaintzea. Erabakietan adostea errazago izateko ere, 12 ordezkariak kopuru egokia izango litzateke».